




**Euskal Autonomia Erkidegoko Esku-hartze
Sozialaren eremuan Hirugarren Sektoreko
jarduerak sustatzeko diru-laguntza
deialdian hautemandako Praktika Onen
Gida. 2010. urtea.**



Dokumentu hau tresna berritzailea da entitateei gizarte-proiektu berriak aurkezteko bidea errazteko orduan. **Praktika Onen gida labor** bat da. Bertan, 2010eko diru-laguntza deialdiko emaitzen arabera aukeratu ziren 29 proiektu daude, Eusko Autonomia Erkidegoan esku-hartze Sozialaren eremuan Hirugarren Sektoreko jarduerak sustatzeko diseinatutakoak.

2010ean Eusko Jaurlaritzak esku-hartze sozialerako diru-laguntza lerroen berrantolaketa abiatu zuen. Neurri horren helburu, besteak beste, ordura arte zegoen zatiketa saihestea zen, zatiketa horrek erakundeek proiektuak era bateratuan eta eskabide bakarrean aurkeztea zailtzen zuelako.

Proiektuak aurkezteko erraztasunak ematearen ildo beretik, beste berrikuntza batzuk ere garatu dira, hala nola tramitazio telematikoa, zuriketa-kontuak, etab.

Gida honetarako aukeratutako proiektuak, kasu guztietan, proiektu bereziki osatu eta orekatuak dira, eta guztiek eskaintzen dute:

- Goi mailako osotasuna.
- Esku-hartze neurri espezializatuak edo banan banakoak.
- Goi mailako irismena, bai kopuruz bai irisgarritasunez, hainbat arazo sozial metatuta dituzten kolektiboek.
- Goi mailako ebaluagarritasuna eta trazabilitatea.
- Barne-koherentzia handia.

EAEko esku-hartze sozialaren eremuan Hirugarren Sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzen hurrengo deialdian parte hartzeko asmoa duten gizarte erakundeei hobekuntza **idea eta bitartekoak eskaintzea da Gida honen helburua.**

Hortaz, **proiektuaren kalitate-item orokorrez gain** (Gida honetan sartzeko ezinbestekotzat jo direnak) **beste alderdi zehatzago batzuk ere kontuan hartu dira**, esate baterako:

1. **Gizarte berrikuntza.**
2. **Ingurumenaren gaia zeharlerro** bezala txertatzea.
3. **Genero-ikuspuntua zeharlerro** bezala txertatzea.
4. **Lurraldez gaindiko** lan eraginkor eta koordinatua.
5. **Sektore-arteko zeharkako guneak** sortzea (hala nola **soziosanitarioak, soziokulturalak, soziohezitzaileak, etab.**)



Ondorengo orrietan praktika ontzat jo den proiektu bakoitzeko fitxa bat aurkeztuko da, dagokien diru-laguntzen lerroaren arabera sailkatuta. Fitxek praktika onen ezaugarri zehatzak jasotzen dituzte, beste gizarte-erakunde batzuk beraien lana aztertu eta alderdi horien gainean hausnartzeko aukera izan dezaten, ondoren beraien egoerara egokitu eta etengabeko hobekuntza-prozesuak garatu ahal izateko, beste erakunde batzuek abiatutako esperientzietatik ikasitakoa aprobetxatuz.



1. **CÁRITAS.** Etorkinen integratzeko komunikazio-gaitasunen tailerrak
2. **FEDEFES.** Gaixo psikikoentzat eta euren senideentzat lege-aholkularitza zerbitzua
3. **SARTU FEDERAZIOA.** SAREGUNE. Teknologien erabilera gizarte-dinamizaziorako eta komunitate-garapenerako
4. **FEDERACIÓN SARTU.** EAEko gizartean integratzeko erabateko zerbitzua
5. **ASOCIACIÓN ESPAÑOLA CONTRA EL CÁNCER.** Minbizi garatuak dituzten pertsonen arreta
6. **ASKABIDE ELKARTEA.** Bizkaian prostituzioan diharduten emakumeen kolektiboarekin esku-hartzeko eragileak
7. **ASOCIACIÓN GITANA GAO LACHO DROM.** Drogamenpekotasunaren inguruan berriazko esku-hartzea
8. **FUNDACIÓN ITAKA – ESCOLAPIOS.** Aukera Programa, arriskuan edo gizarte-bazterketa bizi duten gazteen arreta osorako
9. **MARGOTU.** Gaitze soziodibertsonalerako Kimetz Programa, egoera kaltebera edo bazterketa soziala bizi duten emakumeen gizarte-txertatzerako
10. **FUNDACIÓN ADSIS.** Kultura-arteko elkarbizitzarako taldea (ECI)





11. **EMAUS S. COOP.** ACTIVA-T eragin-sarea. EAEn arriskuan eta/edo baztertuta dauden pertsonak lan-munduan eta gizartean txertatzeko sarea
12. **ASOCIACIÓN HEGOAK-ALDE.** 8. Zinegoak (Bilboko Gay-Lesbo-Trans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia)
13. **FEVAS.** BAIETZ: Adimen edo Garapen Ezintasuna dutenen presentziaren alde
14. **BIZITZA BERRIA.** Ehunate: Arreta eta Prestakuntza zentroa
15. **ASOCIACIÓN GOIZTIRI.** Kolektiboek etxebizitza eskuratzeko programa
16. **ASOCIACIÓN GAZTELEKU.** Deserrotutako gazteentzat gizarte-inplikaziorako programa
17. **FUNDACIÓN LAGUNGO.** Jarrera arazoak eta familia barruko elkarbizitzan arazoak dituzten haur eta nerabeentzako tratamendu psikosozialerako proiektua
18. **FUNDACIÓN BIZITZEN.** "Jakiten": Adineko pertsoneri eta euren zainketari buruzko aholku-zerbitzua: kontsulta eta aholkularitza psikologikoa
19. **ASOCIACIÓN DE REINSERCIÓN SOCIAL GAZTAROA.** Zubiak Eraikitzen. Lan eta gizarte arloan kultura arteko gizarte-bitartekaritza





20. FUNDACIÓN ALDAURI. Auzoko Web telebista

21. KALE DOR KAYIKO. Boluntario-lanerako Plana EAEko Ijito Komunitatearentzat

22. FEDERACIÓN SARTU. AUZO TV. Vitoria-Gasteizko Alde Zaharreko Auzoko Web telebista.

23. FUNDACIÓN FIARE, INVERSIÓN Y AHORRO RESPONSABLE. Gizarteratze-enpresei laguntza emateko berariazko finantza-tresnen garapena

24. FEVAS. Gizarte Erantzukizunerako FEVAS Programa



25. **ANOTHE.** Animalien eta naturaren bidez egindako terapien balioztatze zientifikoa
26. **EAPN EUSKADI.** Bazterketa sozialaren irudia gizartearen aurrean: zelan berrizatu pobreziaren eta gizarte bazterketaren arloan lan egiten duten erakundeen komunikazio-planak
27. **ZERBIKAS FUNDAZIOA.** Ikaste eta zerbitzu solidarioa. Norbanakoaren autonomia eta gizarteratzearen sustapena. Esku-hartze sozialerako langileen trebakuntza
28. **FEVAS.** Teknologia berriak auzitara. Ezintasunaren Nazioarteko Eguna (abenduak 3)
29. **SOS RACISMO BIZKAIA.** Arrazakeriaren kontra sentsibilizatzeko jakintzaren kudeaketa





PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Cáritas Diocesana de Vitoria 1965ean eratu zen, eta karitatezko gizarte-ekintza, batetik, eta pobrezia, bazterketa eta egoera kaltebera bizi duten pertsonen sustapena eta garapen osoa bultzatzea, bestetik, dira bere helburuak. 38 elizbarrutiko Cáritasek osatzen dute, eta guztira 750 boluntario eta 1700 bazkidetik gora ditu.

Komunikazio Gaitasunen Tailerren Proiektuak hizkuntza ikasteko prozesua azkartu eta hobetu nahi du, oinarrizko hiztegi erreala eta funtzionala eskainiz benetako komunikazio-egoeretan.

Halaber, etorkinek harrera-gizarteak dituen zerbitzu eta baliabideak eta bertako kultura eta ohiturak ezagutu ditzatela bilatzen du, eta ondorioz, parte-hartzea eta txertatzea ahalbidetzea.

PRAKTIKA ONAK

Gizarte berrikuntzarako tresnak garatzea
Erakundeak 2.0. osagaiak dituen webgunea du: RSS, Deskargak, bloga, etab.

Ekonomia solidariorako tresnak garatzea
Erakundea bere sorreratik Banku Etiko ekimen baten bazkide sustatzailea da.

Genero Ikuspuntua txertatzea.

Bizitza pertsonala, familiarra eta lana uztartzea zeharkako aldagaia da, eta proiektu osoan kontuan hartzen da, prestakuntza jasotzen dutenen ordutegiak antolatzean, besteak beste.

Boluntarioen lana era eraginkorrean txertatzea.

Proiektuak bere maila guztietan (koordinazioa, kudeaketa, zuzeneko arreta, etab.) soldatapeko teknikarien eta boluntarioen lana uztartzen du.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Euskadiko Eri Psikiko eta Senideen Elkarten Federakuntza, 1987an eraturako irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundea da eta lau elkarte biltzen ditu: ASAFES (Araba), AVIFES (Bizkaia), AGIFES, (Gipuzkoa) y ASASAM (Aiaraldea).

Gaixo psikikoen familientzako aholku-zerbitzu honek gaixoen bazterketa soziala saihestu nahi du, esparru zibil, penal eta lan-arloko gaitan. Horretarako, Justizia Administrazioekin eta Tutoretza Fundazioekin koordinazioa bideratzen du, besteak beste, eta sor daitezkeen legezko zalantzak argitzen dizkie kide diren entitateei, bai telefonoz bai aurrez aurre, egoitzak txandaka bisitatuz.

PRAKTIKA ONAK

Sektore-arteko zeharkako guneak sortzea.

Proiektuak dimentsio soziala eta juridikoa uztartzen ditu, familien eskariei aurre egiteko asmoz.

Lurraldez gairako lan eraginkorra.

Jarduerak Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan garatzen dira eta EAE osorako lanerako marko komuna ezartzen du. Kide diren entitate guztiek arreta-eredu bera jasotzen dute, egoitzaz egoitza txandatuta.

Sarean lan egiteko tresnak garatzea.

Proiektuak sarean lan egiten du eragile osagarriekin (Fiskaltza, Tutoretza Fundazioak, etab.), aholku juridiko soiletik haratago doan zerbitzu gehigarria eman ahal izateko.

3. FEDERACIÓN SARTU ÁLAVA

www.alava.sartu.net

SAREGUNE, GIZARTE DINAMIZAZIORAKO ETA
KOMUNITATE GARAPENERAKO TEKNOLOGIAK

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

SARTU 1988 geroztik gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duen lau elkarteren **federazioa da**, eta bazterketaren aurka lan egitea du helburu. Proiektu hau, hain zuzen ere, SARTU Álavak aurkezten du.

SAREGUNE **Vitoria-Gasteizko Erdiaroko Hirigunearen gizarte eta komunitate dinamizaziorako** teknologia berrien erabilera bultzatzeko elkargunea da.

Erdiaroko Hirigunea **degradazio-arrisku handiko ingurua** da: bertan suertatzen dira oinarrizko errenta jasotzen duten pertsonen ehunekorik altuena, etorkinen indize altua, eta gune publikoen gabezia.

PRAKTIKA ONAK

Gizarte berrikuntzarako tresnak garatzea.

Proiektu osoa IKTen gaineko lana da, gizarte eta komunitate dinamizaziorako bide bezala (horren barruan elkarreentzako webguneen garapena dago, beraiek mantendu eta eguneratzeko modukoak) eta elkarbizitzarako dauden hutsuneak gainditze aldera.

Genero ikuspuntua txertatzea.

Proiektuak ukitzen dituen alor guztietan genero ikuspuntua txertatua du, hala nola kulturaren, hezkuntzan, gizarteratzean, osasunean, hirigintzan eta ingurumenean.

Gutxietsitako inguru geografikoan lana egitea.

Proiektua Vitoria-Gasteizko Hirigune Zaharrean garatzen ari dira, hiriko ingururik degradatuenetarikoa.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

SARTU 1988 geroztik gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duen lau elkarteren federazioa da, eta bazterketaren aurka lan egitea du helburu. Proiektu hau, hain zuzen ere, SARTU Álavak aurkezten du.

Programa honen helburua Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta EAEko komunitate zerbitzuen osagarri izan daitekeen zerbitzu espezializatu bat eskaintzea da. **Gizartean txertatzeko laguntza zerbitzua da, arrisku edo bazterketa egoeran dauden pertsonentzat txertatze-plan bat** egiten lagunduko diena, eta inguruan eta pertsonengan aldaketak ahalbidetu eta pertsonen autonomia sustatzera bideratuta dago.

PRAKTIKA ONAK

Kudeaketan kalitate-gaiak txertatzea

Erakundeak proiektuen kalitatea neurtzeko tresnak erabiltzen ditu, langile, erabiltzaile, Oinarrizko Gizarte Zerbitzu eta lankidetzan aritu diren enpresentzat gogobetetze-galdetegien bitartez.

Sektore-arteko zeharkako guneak sortzea.

Proiektuak arlo soziolaborala jorratzen du, eta integrazio-prozesua laguntzen du gizarte-lana (pertsonaren gaitasun sozialak, bere ingurua) eta enplegagarritasuna (gizarteratzeko laguntza) uztartuz.

Genero eta aniztasunaren ikuspuntua txertatzea.

Dauden tokien %60 emakumeentzat erreserbatzen da. Halaber, etorkinekin lan egitea sustatzen da.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Asociación Española Contra el Cáncer (AECC) 1953an eratutako elkarte da, eta EAEko hiru lurralde historikoetan ordezkariak dauzka. Herri-onura izendapena dauka eta bere jarduna soldatapeko teknikarien eta boluntarioen lan uztartuan oinarritzen du.

Proiektu honen nahia da **gaixoak heriotzari erarik duinenean aurre egin** diezaiola eta familia barruan desoreka emozional patologikoak ekiditzea, familia batasunak eskaintzen dituen baliabideak identifikatu eta bultzatuz, eta bitarteko soziosanitarioekin zubilana eginez, zerbitzuak bikoiztu barik etengabeko zaintza eskaini ahal izateko; hortaz, zaintzaileen atsedeen fisiko eta emozionala ahalbidetu eta gaixoaren autonomia sustatzen da.

PRAKTIKA ONAK

Genero-ikuspuntua txertatzea.

Proiektuak arreta berezia jartzen du genero-ikuspegian, sarritan emakumeak izaten direlako gaixoen zaintzaz arduratzen direnak, eta egoera horiek bestela bideratzen ahalegintzen da.

Instituzio-arteko koordinazioa.

Proiektuak baliabide soziosanitarioekiko etengabeko koordinazioa eskaintzen du, zerbitzuak bikoiztu barik etengabeko zaintza eskaini ahal izateko. Zerbitzu honek ospitale (onkologia, hematologia, ginekologia, minaren unitatea, etab.) osasun-zentro, Oinarrizko Gizarte Zerbitzu eta osasun arloko zentro pribatuetako lana ere koordinatzen du.

Lurraldez gaindiko lana.

Proiektuak EAE osoa hartzen du, AECCren hiru ordezkariak koordinazioaren bidez.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Askabide prostituzioaren inguruan dauden pertsonen arreta emateko eta errealitate honen aurrean informazio eta salaketa sozial lana egiteko irabazi-asmorik gabeko elkarte da 1985 geroztik.

Komunitatean esku-hartzeko eragileen proiektuak **prostituzioan diharduten pertsonenganako hurbiltzeko ahalegina** egiten du, lana egiten duten toki berean (pisuak, tabernak) eta eskura dauden **gizarte, lege eta osasun baliabideen inguruko informazioa** eskaintzen die, baita zerbitzu horietar joteko laguntza ere.

Halaber, jarduera-tokien jarraipena egiten da eta kaltegarri diren jokabideak desagertzeko lana egiten da, ohitura osansungarriak zabalduz, ongizate eta osasunerako.

PRAKTIKA ONAK

Genero-ikuspuntua txertatzea.

Proiektuak arreta berezia jartzen du genero ikuspegian, era integratu eta diziiplina anitzekoan, prostituzioan lan egiten duten emakume eta transexualen gizarteratzerako.

Sektore-arteko zeharkako guneak sortzea.

Proiektuak **osasun arloko informazioaz gain, lan eta lege esparruetakoa** ere ematen du. Baliabide horietara iristeko laguntza eskaintzen du eta ohitura osansungarriak sustatzen ditu.

Banakako laguntza eskaintzeko neurriak.

Eragilearen eta prostituzioan ari denaren arteko zuzeneko harremana lantzen da, enpatian oinarritutako konfiantzazko harremanaren bidez, kasu askotan eragilea bera prostituziotik datorren pertsona baita.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gao Lacho Drom elkarteak 60ko hamarkadatik ari da ijitoen komunitatean lanean, e ardatz nagusirekin: hezkuntza, lana/prestakuntza eta etxebizitza.

Proiektu honek **drogen menpe dauden ijitoekin zuzeneko lana** egin nahi du. Helburu nagusia laguntza, aholku eta interbentzio psikoterapeutikoa eskaintzea da, menpekoek eta erabiltzaileek egin ditzaketan tratamenduekiko osagarri gisa.

Estrategia terapeutikoak (banakakoak, taldekoak eta familiakoak) kontsumoak eta arrisku faktoreak gutxitu eta tratamenduekiko jarraikortasuna lortzera bideratuta daude lehenik eta behin, eta ondoren, pertsona horiek bere laneko arduetan "birkokatze" tratamenduekin osagarriak izango diren ekintzak garatzera.

PRAKTIKA ONAK

Proiektuaren irismena.

Proiektua zailtasun sozial asko dituen kolektibo espezifiko bati zuzenduta dago: adikzio arazoak eta jarrera eta gizarteratze arazoak izan dituzten ijito jatorriko droga-kontsumitzaileak.

Ebaluagaritasun eta jasangarritasun tresnak ezartzea.

Ebaluazio-tresnak (galdetegiak, edukien ebaluazio-fitxak, langileen auto-ebaluazioak) eta adierazleak kontuan hartzen dituen ebaluazio eta jarraipen sistematizaturako prozesua erabiltzen dute.

Komunitate-garapenerako tresnak ezartzea.

Eraginpeko udalerrietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekiko koordinazioa lantzen da eta kolektiboarekiko gainbegiratze eta bitartekaritza lanetarako boluntarioekin lan egiten da, kaltetuen ingurunean.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Fundación Ítaka-Escolapios, 2001ean sortua eta Herri Onura izendatutakoa, **mundua eraldatzeko erarik eraginkorrena hezkuntza** dela iritzikoa da. EAEn baditu egoitzak, eta baita Espainian eta atzerriko beste toki batzuetan ere.

Aukera Programak etorkin gazteen integrazio sozial eta laborala bilatzen du, osoko ikuspuntu batetik, garapen pertsonala eta soziala, prestakuntza eta orientazioa, eta enplegurako, etxebizitzarako eta gizarte baliabideetarako aukerak kontuan hartuta.

Proiektu hau **Fundación Peñascalekin** (lanbide-heziketa eskaintzen duena), **HEMENekin** (helduentzako laguntasun-zerbitzua), **CEAR**-Euskadirekin, eta Bizkaiko Foru Aldundiko **Hautzaro Zerbitzuekin** eta **EAPNrekin batera garatzen dute**.

PRAKTIKA ONAK

Proiektuaren ebaluagarritasuna.

Proiektuak badu segimendua egiteko eta lortutako emaitzak ebaluatzeko adierazle multzo osotua.

Ekimena era koordinatuan lantzea.

Proiektua beste gizarte-eragile batzuekin batera landu da (Fundación Peñascalekin, besteak beste), lan-sistemaren barruan txertatzeko prestakuntza-ekintzak garatuz, eta prestakuntza-baliabideak etxebizitza eta gizarte arlokoekin uztartuz. Horretarako, badago EAPNren barruan (Europako Pobreziaren Aurkako Sarea) etorkinentzako etxebizitza-arloko praktika onen eskuliburu bat.

Boluntarioen lana era eraginkorrean txertatzea.

Proiektuak Fundazioaren plantillako teknikarien eta borondatezko langileen lana uztartzen du. Azken horien lana batez ere gaztelaniazko eskolak ematea eta aisialdi-ekintzak bideratzea da.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Margotu irabazi-asmorik gabeko elkartea da, eta prestakuntza eta lan eta gizarte esku-hartzearen bidez, zailtasun bereziak dituzten kolektiboen **txertatze-soziolaborala bilatzen du**. Egoitza Bilbon du eta 2000. urtean sortu zen.

Lan-munduan txertatzeko **gaitze sozio-pertsonalerako den Kimetz Proiektuak** osasun fisiko eta emozionalarekin lotutako arazoei erantzuna eman nahi die, arazo horiek baztertuta edo arriskuan dauden 20 emakumeren isolamendu eta bazterketa dakartelako.

Hortaz, **lan-trebetasunak** jorratzen ditu (joste-tailerrak) eta baita **gaitze psikosoziala** ere (adimen emozionala, resiliencia, jabetasuna, erabaki-hartzea, etab.), **ibilbide soziolaboralaren prozesu pertsonal** batekin batera.

PRAKTIKA ONAK

Proiektua ebaluatzeko tresnak ezartzea.

Proiektuak adierazle-multzo osotua dauka bai jarraipenerako bai jasotako emaitzak baloratzeko.

Zailtasun sozial metatuak dituzten kolektiboek zuzenduta.

Proiektuak bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden emakumeen gaitze soziolaboralerako esku-hartze integrala eskaintzen du. Parte-hartzaileak hein handi baten etorkinak dira eta lanmunduratzeko eta gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzte. Programa honek aukera soziolaboralak era eraginkorrean zabaltzen dizkie.

Kalitatea kudeaketan.

Kalitate-kudeaketarako sistema eraginkor baten ezaugarriak zehazten dituen ISO 9001 Araua dauka erakundeak.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

ADISIS gizarte bidezkoagoa eta solidarioa eraiki nahi duen Fundazioa da, **pobreziak eta bazterketak jotako pertsona eta taldeak sendotzearen bidez**. Lan hori garapen pertsonal eta kolektiborako prozesuen bitartez egiten du, gertuko harremana, laguntasuna eta zerbitzu eraginkorra eskainiz.

ECI Proiektuak dituen helburuak honako hauek dira: Euskal gazteria **Ipar-Hegoaren artean dagoen aldeaz sentsibilizatu eta kontzientziatzea**; eta kultura-arteko gizartearen sortzeko premiaz jabetzea, gazteen parte-hartze aktiboaren bidez.

Hortaz, **16 urtetik gorako 30 zentroko 1900 gaztek** Ipar eta Hegoaren arteko aldeaz hausnartuko dute, eta hobekuntza-bideak proposatzen saiatuko dira.

PRAKTIKA ONAK

Boluntarioen lana era eraginkorrean txertatzea.

Proiektuak, soldatapeko teknikariek gain, boluntario sare zabala ere badu. Horietako batzuk, gainera, etorkin gazteak dira. Horrek proiektua aberastuko du, zentroetako ikasleekin elkar-eragutzea ahalbidetuko duten dinamikak ezarriz.

Irismena eta lurraldez gaindikotasuna.

Proiektua hiru Lurralde Historikoetako gazte-kopuru handi bati zuzenduta dago, eta irismen handiko ekimena da, EAE barruan ia 2.000 lagunengana ailegatuko baita.

Berrikuntza.

Erakundeak gizarte-sareetan profilak ditu (proiektuaren jomuga diren gazteekin komunikatzeko ezinbesteko tresnak baitira).



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Emaús Sociedad Cooperativa Gizarte Ekimenerako erakundea da eta baztertua edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko hainbat proiektu, programa, ekintza eta itun dauzka. Hortaz, ekonomia sozial eta solidarioaren oinarri eta balioen arabeko ingurumeneko zerbitzuak eta ekintzak garatzen ditu.

Activa-T eragin-sarearen helburu nagusia Diru-sarreraren Bermerako Errenta edo bestelako prestazioak jasotzen dituzten pertsonak lan-merkatuan sartzea da.

Kontratudun prestakuntza programetan (prestakuntza eta enplegu programak) edo **babestutako enpleguan** (Gizarteratze Enpresak) sartu ahal izateko, lanerako eta gizarteratzeko trebetasunak hobetzeko bideak eskaintzen ditu.

PRAKTIKA ONAK

Sektore-arteko zeharkako guneak sortzea. Proiektuak, txertatze soziolaboralerako programa izanik, gizarte- eta lan-arloak lantzen ditu aldi berean.

Proiektua lurraldez gaindiko lan eraginkorraren bidez gauzatzea.

Ekintzak lurraldez gaindiko mailan egiten dira, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan. Hortaz, EAE-mailan lanerako marko eraginkor, komun eta koordinatua eskaintzen du.

Genero Ikuspuntua projektuan txertatzea.

Proiektuak emakumeen baldintza ekonomiko eta sozialak hobetzea lehenesten du. Sortzen diren lanpostuen % 75 andrentzat dira, eta onuradunen % 75 ere emakumeak dira.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

HEGOAK, Euskadiko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen irabazi-asmorik gabeko elkarte, 1998an sortu zen eta **homosexualitatearen, lesbianismoaren eta transexualitatearen normalizazioaren alde eta diskriminazioaren kontra** lan egiten du.

Zinegoak gay-lesbo-trans kolektiboaren normalizatorako lanean ari da eta zinemaren bitartez askatasun eta aniztasun afektibo-sexuala babestea bilatzen du. Horretarako **GLBT pertsonen integrazioa eta parte-hartzea** bultzatu nahi ditu, eta GLBT komunitatearen **autoestima indartu** nahi du, kolektibo osoarena, eta bereziki, gazteena.

Elkartearen helburu zehatz bat **emakume lesbiana eta bisexualak gizartean parte hartzera** bultzatzea da.

PRAKTIKA ONAK

Proiektua lurraldez gairako lan eraginkorren bidez gauzatzea.

Jaialdiaren atal nagusia Bilbon den arren, ondoren jaialdiaren hedapena egiten da, EAEko eta Nafarroako hainbat udalerritan, eta nazioartean.

Genero ikuspuntua proiektuan txertatzea.

Proiektuak genero-ikuspuntua emanaldietako batzuetan lantzen du, estereotipo sexistei aurre egin eta lesbianismoaren errealitatea erakutsiz. Grina honi esker urtero Bilboko Udalaren Berdintasun Arloko sari bat jasotzen du.

Boluntarioen lana era eraginkorrean txertatzea.

Jaialdiak berriazko lana egiten duten soldatapeko langileak baditu ere, ekimen hau ez litzateke bideragarria izango. Elkartearen boluntarioen lankidetzaz zabala barik.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Adimen edo garapen ezintasuna dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioak (**FEVAS**) **EAE**n adimen-ezintasuna duten pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten **11 familia-elkarte** ordezkatzeko dituzte.

Adimen- edo garapen-ezintasuna duten pertsonen ikuspena, tratua eta ezagupena asko hobetu den arren, oraindik gizarte aurreratuen burutu gabeko erronka da egoera hau hobetzea, pertsona hauek gizartearen barne egon daitezen eta arlo guztietan aktiboki parte hartzeko gai izan daitezen.

BAIETZ programak egoera horri erantzuna eman eta ezintasun intelektuala jorratzen duen **komunikaziorako bidea** izan nahi du. Horretarako informazioa eta prestakuntza bultzatu, eta adimen-ezintasuna dutenen eskubideak errespetatzen dituen iritzi-maila indartu nahi ditu.

PRAKTIKA ONAK

Gizarte Berrikuntzarako tresnak garatzea.

Aldizkariaren eduki bakoitzean "irakurketa erraza" atal bat dago, hizkuntza errazagoa eta erredakzio zuzenagoarekin, adimen-zailtasunak dituzten pertsonen oinarriko edukiak jaso ahal izan dituzten.

Proiektua lurraldez gaindiko lan eraginkorren bidez gauzatzea.

Aldizkaria EAE osoan banatzen da eta gainera, web bidez munduan edonondik dago ikusgai.

Ingurumenaren jasangarritasunerako gaiak proiektuan barne hartzea.

Erakundeak energia aurrezteko eta ingurumenarekiko eraginkortasuna garatzeko ekimenak ditu. Hain zuzen ere, aldizkaria bera erakundearen webgunean ikusgai dago PDF formatuan.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Bizitza Berria Elkartea, 2007tik Gasteizen egoitza duena, gizarte-bazterketa mailarik handienean bizi diren pertsonen premiei aurre egin nahi die.

"Ehunate Zentroa: elkartasunerako ehun ate" izeneko proiektuak lanbide-heziketarako zentroa da, zerbitzu nagusi birekin: **gizarte-arretarako zerbitzuak eta prestakuntzarako balioaniztun ikasgela**. Zerbitzu horiek zailtasun sozialak dituzten kolektiboek zuzenduta daude, eta behar dituzten babes-ekintzak eskaintzen dizkie, egoerari lotutako arrisku-aldagaiak murriztuz eta babesa areagotuz.

PRAKTIKA ONAK

Sektore arteko zeharkako guneak sortzea.

Lanbide-heziketa eta gizarte-arretarako zentro moduan eratuta, gune soziohezitzaileak eta soziolaboralak sortzen dira bertan.

Komunitatea garatzeko eta borondatezko lana era eraginkorrean uztartzeko ekimenak sustatzea.

Gasteizko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin eta osasun-zerbitzuekin koordinaziorako bideak ezartzen ditu, eta erakundearen boluntarioentzat babesa bermatzen du.

Lana era koordinatuan egitea.

Proiektua enplegura bideratutako tokiko prestakuntza-baliabideekin eta zenbait enpresarekin koordinatuta dago, lanerako aukerak maximizatze aldera.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Goiztiri Elkartea Barakaldon sortu zen eta **lan- eta gizarte-esparruetan pertsonen bizitza-kalitatea hobetzeko** hainbat lan-ekimen batzen dituen plataforma da.

Esku-hartzerako bost arlo estrategiko ditu: Gizartean eta lan-munduan txertatzea, adin txikikoak eta nerabeak, inmigrazioa, etxebizitza eta ekonomia sozialerako ekimenak.

Baztertuta dauden kolektiboentzat etxebizitza eskuratzeko "Etxeberri" programa izeneko proiektuak **ohiko zirkuitoetatik kanpo geratzen diren eta erraztasun gutxiago dituzten kolektibo**ei **etxebizitza eskuratzeko aukera erraztu nahi die**, gizartean txertatzeko prozesu osoan lagunduko dien **elkartearen babesarekin**.

PRAKTIKA ONAK

Metodologia berritzailea erabiltzea.

Programa honek zailtasun sozialak dituzten pertsonentzat etxebizitza topatzeko bitartekari lana egiten du, eta bertan gizarte eragileek eta administrazio publikoak hartzen dute parte. Lankidetzaren hori oso garrantzitsua jabe eta errentariaren artean edo errentarien artean sor daitezkeen arazoak konpontzeko.

Instituzioarteko Koordinazio Sistemak.

Etxebizitzak lortzeko bitartekaritza-lana Eusko Jaurlaritzarekin (Etxebide eta Bizigune), BFArekin (Tutoretza Erakundea) eta Udalekin.

Lana era koordinatuan egitea.

Onaradunak bideratzen dituzten 10 enpresarekin batera egiten dute lan, elkarteak berak sustatutako gizarteratze-enpresarekin lankidetzan.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gazteleku irabazi-asmorik gabeko elkarte da eta joan den 30 urtean Komunitate Garapenerako eredu bati jarraituz gizartea aldatzeko nahian dabil. Aldarrikatzen duen garapen ereduak gertuko inguruarekiko konpromisoa bilatzen du, eta hiritarren protagonismoa berreskuratzeko prozesu pertsonal zein kolektiboak ahalbidetzen ditu.

Deserrotutako gazteentzat gizarte-inplikaziorako programak zailtasunak dituzten Bilboko VII. Barrutiko gazteei **garapen pertsonalerako ezarrita dituzten prozesuak osatzeko babes zerbitzu espezializatua eskaintzen die**, komunitatean parte hartzen dutela bermatuz. Horretarako erabiltzen duen metodologiak banakako zein taldekako ekimenak proposatzen ditu, betiere komunitatea aldaketarako eragile nagusia dela ahaztu gabe.

PRAKTIKA ONAK

Zailtasun sozial metatuak dituzten kolektiboek zuzenduta.

Erabiltzaileak gizarteratze-prozesuetan dauden gazteak dira, 19 eta 35 urte bitartekoak, eta horietako batzuk kalean egindako lanaren bidez ekarritakoak, eta honelako gaiekin lotutako arazoak dituztenak: langabezia, inguruarekiko interes falta, prestakuntza gutxi, drogen kontsumoa eta harremanetan istilu-maila handia.

Proiektuaren jasangarritasuna. Proiektua 2003an hasi zen eta elkarteak barrutian abiatu duen Haur eta Gazteen Planaren barruan dago. Urteko hitzarmenez gain, elkarteak berak proiektuaren kostuaren zati garrantzitsu bat ordaintzen du.

Berrikuntza-tresnak. Erabiltzaileekin eta komunitatearekin *world café* saioak egiteko asmoa dago, eta baita erabiltzaileen gogobetetzea neurtzeko tresnak (parte-hartzaileek ekimena baloratzeko fitxak) erabiltzen dituzten elkarteekin lan egitea ere.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Centro de orientación familiar Lagungo fundazioak, 1993an eratuta, pertsonen eta familien ongizaterako zerbitzu bat eskaini nahi diote gizarteari, eta bereziki baliabide ekonomiko gutxiago duten familiei.

Aurkeztutako proiektuak esku-hartze psikosozialerako prozesuak eta banakako eta familiako terapia eskaintzen ditu. Halaber, **egoera desorekatua (gizarte, lan edo familia arloan) eta jarrera eta elkarbizitzarako arazoak** dituzten gazteei talde terapia eskaintzen die.

PRAKTIKA ONAK

Sektore arteko zeharkako guneak sortzea. Nerabeekin eta familiekin egiten den lan terapeutikoaren bidez esku-hartze sozio-hezitzaileko guneak sortu nahi dira, aurrera begira kolektiboak bizitza sozial, familiar eta pertsonal osasuntsua eta positiboa eraikitzen ikas dezan.

Zailtasun sozial metatuak dituzten kolektiboek zuzenduta. Gehienbat 15-18 urte bitarteko gizonezkoak, era honetako zerbitzu pribatuak jasotzeko baliabiderik ez dutenak eta oro har egituratu gabeko familietatik datozenak, laneko egoera ezegonkorrekin. 28 familiarekin lan egiteko aurreikuspena dago.

Jasangarritasuna eta kofinantzazioa. Proiektuak aurrera jarraitzearen aldeko apostu sendoa egin dute, eta finantzaketa-bideak dibertsifikatu dira, erabiltzaileen, elkarte beraren, beste erakunde batzuen (Fundación Tapia) eta Administrazio publikoaren ekarpenekin.



PROIEKTUAREN DESKRIAPENA

Bizitzen Fundazioa 2000. urtean sortu zen, **adineko pertsonen eta euren inguruko ongizatea sustatzeko asmoz**. Hortaz, pertsona horien bizitza-kalitatea hobetzeko, gizarte-zerbitzuen arloko ekimenak garatu ditu EAE osoan.

“Jakiten: Adineko pertsonen eta euren zainketaren gaineko aholku-zerbitzua” izeneko proiektuak **adineko pertsonak zaintzen laguntzeko aholku-zerbitzu bat eskaintzen du, bide asko erabiliz: telefonoa, posta eta aurrez aurrekoa** (zerbitzuaren egoitzan zein erabiltzailearen etxean). Helburua EAE osora zabaltzea da, baina abiapuntu moduan, Fundazioak dagoeneko zerbitzuak eta esku-hartze sozialerako programak dituen udalerrietatik hasiko da.

PRAKTIKA ONAK

Zailtasun sozial metatuak dituzten kolektiboek zuzenduta eta genero-ikuspuntua txertatuta. Menpekotasuna duten pertsonen zaintzaz arduratzen direnei zuzenduta, gehienetan emakumezkoak direnak, eta bereziki, alabak, euren denbora eta bizitza sozialaren edo profesionalaren zati bati uko egiten diotenak zaintza-lanak egiteko. Guztira 260 zaintzaile aurreikusten dira (% 80 andrazkoak).

Metodologia berritzailea erabiltzea. Menpeko pertsonak dituzten familiei arreta eskaintzeko hainbat euskarri erabiltzen dira (telefonoa, *on-line* plataforma bi, posta eta aurrez aurrekoa), eta horien bidez familia-zaintzarako berriak tresnak eskaintzen dira.

Erakundearteko koordinazioa. Erakundeak proiektuak abian dituen udalerrietako udalen lankidetzara dauka, egoitzak utzi eta herritarrak informatu eta premia duten pertsonak proiektura biltzeko.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gaztaroa Elkartea SARTU Federazioan dago eta gizarte zerbitzuen arloan egiten du lan. Zerbitzu publikoa den heinean, **marginazioa eta bazterketa sozialaren aurka lan egitea** du helburu.

Zubiak Eraikitzen proiektua: kultura arteko gizarte-bitartekaritza esparru soziolaboralean, **txertatze soziolaboralean parte hartzen duten eragileen artean "zubiak eraiki"** nahi dituen esperientzia da, batez ere etorkinei begira.

2005ean sortua, izan dituen emaitza positiboek Administrazio Publikoaren eta administrazioarekin elkarlanean ari diren erakunde laguntzaileen programa eta zerbitzuetan bitartekari bezala errotzea ahalbidetu du.

PRAKTIKA ONAK

Zailtasun sozial metatuak dituzten kolektiboei zuzenduta egotea eta **sektore-arte**ko zeharkako guneak sortzea.

Proiektuak etorkinen kolektiboarentzat esparru soziolaboralerako bitartekaritza eskaintzen du, emakumeentzako arreta bereziaz, bazterketarako arrisku handiagoa duen kolektiboa baita.

Metodologia berritzailea erabiltzea. Erabilitako metodologia *Sartu* federaziora zabaltzea eta beste erabiltzaile batzuekin eta beste erakunde batzuetan erabiltzea aztertzen ari dira. *Sartun* EAEko lau erakundek hartzen dute parte.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Aldauri Fundazioa Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetako elkarte eta pertsonen auzogintzako esperientziaren eta lanaren emaitza da.

"Auzoko Web Telebista" IKTak erabili nahi ditu (web eta bideoa) **elkarrizketa, komunikazio eta parte-hartzeko guneak sortzeko, San Frantzisko auzoko egoiliar eta merkatarientzat**, auzoko zerbitzu eta jardueren ikustezko gida baten bidez, eta zabalkunderako webgune baten bitartez.

Ikustezko komunikazioaren bidez, esperientziak trukatzeko gunea izan daiteke, eta hein berean, auzoko merkataritza berriz suspertzeko.

PRAKTIKA ONAK

Metodologia berritzailea erabiltzea. Web euskarrian egindako gida baterako egitasmoa dago, inguruko elkarten zerbitzuak eta bertako merkataritza txikiaren bikaintasuna ezagutzera emateko helburuarekin.

IKTak erabiltzea. Proiektu osoan IKTak erabiltzeko asmoa dago, 2001etik San Frantzisko inguruan abian den Konekta proiektuaren sinergiak aprobetxatzeko. Horrela informazioaren teknologia berriak ezagutzera eman, eta prestakuntzaren eta doako sarbide librearen bitartez, bazterketa sozialaren aurka borrokatu nahi da.

Elkartasunerako komunitate-sareak sustatzea. Hiritarren jabekuntza lortu eta elkarbizitzarako guneak erakitzeko orduan izan dezaketen eragina handitzea da proiektu honen xedea, eta auzoaren barne zein kanpo pertzepzioa hobetzea, habitat anitz eta heterogeneoa bezala baloratuz.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Kale dor Kayiko elkarteak 1989an eratu zen hainbat helbururekin, hala nola **EAEko ijitoei hezkuntza, kontzientziazioa, trebakuntza, eta aholkua** eskaini ahal izatea; **hezkuntza, elkarbizitza, gizarte-sustapena eta parte-hartzearen inguruko gaietan eztabaida bultzatzea** gizarte zibilaren sektoreen artean; Ijito Kultura garatu eta Kultura arteko Elkarbizitza hobetzera bideratutako edozein ekimen sustatzea.

Proiektu honek **ijitoek gizarte-partaidetzarako guneetara iristeko aukera** izan dezatela nahi du, ijito-komunitatearen barruan **elkartegintza indartuz eta boluntario-sare egonkor bat eratzea** ahalbidetuko duten egitura malguak eta tresna egokituak sortzea.

PRAKTIKA ONAK

Boluntarioen lana era eraginkorren txertatzea. Proiektua bera boluntario sare egonkor bat eratzerazuzenduta dago. Sare hori erakundearen beste proiektu batzuk garatzeko euskarrria izan daiteke eta Boluntariotzaren II. Euskal Planaren ildo beretik doa.

Proiektuaren lurraldez gaindiko garapena. Proiektua EAE osoan garatzen da, baina bereziki Bizkaia eta Arabako Lurralde Historikoetan eta lanerako lerro asko partekatzen dituzte.

Web 2.0.-n presentzia. Erakundeak Facebook edo Twitter bezalako sare sozialetan profila dauka. Gainera bere bloga ere badu. Guzti hau oso garrantzitsua da jomugan duten kolektiboa kontuan hartzen badugu (gazteak, gehienbat).



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

SARTU 1988 geroztik gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duen lau elkarteren federazioa da, eta bazterketaren aurka lan egitea du helburu. Proiektu hau, hain zuzen ere, SARTU Álavak aurkezten du eta entitate berak kudeatzen duen Saregune proiektuarekin estuki koordinatuta dago.

AUZO TV Gasteizko Alde Zaharraren auzoko web bidezko telebista da. Helburu bikoitza dauka:

Batetik, **bizilagunen jabekuntzarako tresna** izan nahi du, komunitatean parte-hartzeko era aktiboa eta zuzena eskainiz. Bestetik, hiritarrek auzo horren gainean duten **barne-eta kanpo-pertzepzioa aldatu** nahi ditu.

PRAKTIKA ONAK

Gizarte berrikuntzarako tresnak garatzea eta sektore-arteko zeharkako guneak sortzea.

Proiektu osoa IKTen gaineko lanean oinarrituta dago, bi mailatan. Batetik, Web TB bat sortzeak lanean txertatzeko zailtasunak dituzten 12 pertsonari lanerako gaitasun sozioprofesionalak eskuratzeko aukera eskainiko die. Bestetik, Web TB bera dinamizazio soziokomunitariorako bitartekoa izango da, eta auzoaren egunerokatasunaren gaineko informazioa eskainiko du. Hortaz, auzoaren eta bertan bizi diren edo lan egiten duten (merkatariak, ostalariak, etab.) pertsonen gaineko estereotipoak bertan behera geratuko dira.

Gutxietsitako inguru geografikoan lan egitea.

Proiektua Vitoria-Gasteizko Alde Zaharrean garatzen ari dira, hiriko ingururik degradatuenetarikoa.

23. FUNDACION FIARE

www.fiare.org

GIZARATERATZE-ENPRESEI ETA LANEAN TXERTATZEKO
PROZESUEN SUSTAPEN-ERAKUNDEEI LAGUNTZA EMATEKO
BERARIAZKO FINANTZA-TRESNEN GARAPENA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Fundación Fiare 2003an eratu zen Hirugarren Sektoroko 52 erakunderen partaidetzarekin, Banku Etikoen irizpideen arabera jokatu zuen Kreditu Kooperatiba bat sortzeko.

Aurkeztutako proiektuak **finantza-tresnak sortzeko** oinarriak jarri nahi ditu. Tresna horien helburua da premia bereziak dituztelako zein ekonomia hauskorra dutelako, ohiko finantzazio-sistemaren barruan tokirik ez duten eskatzileei pertsonen eta erakundeen aurrezkiak helaraztea.

Tresna horiek bi mailatan garatuko dira: gizarteratze-enpresak sustatzen dituzten erakundeentzat, batetik, eta bestetik, gizarteratze-enpresei eurei ere laguntza finantzarioa eskainiko zaie.

PRAKTIKA ONAK

Lurraldez gaindiko lan eraginkorra.

EAEko erakunde eta pertsonen zuzenduta dago, entitate eratzaileren jatorriaren arabera.

Bestelako eragileen babesik ez duen kolektibo bati zuzenduta.

Egungo fintza-zirkuitoetan tokirik ez duten eskatzaileei baliabideak eskaintzen dizkie. Onaradun nagusiak gizarteratze-enpresak eta sustatzaileak dira, REASen (Ekonomia Solidarioarako Sarea) beste entitate batzuen laguntzarekin. 1050 pertsonari lana ematen die eta *Gizatea* sarean 42 gizarteratze-enpresa ditu, bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden 314 pertsonari lanpostuak eskainiz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Esku-hartze Sozialaren eremuan Hirugarren Sektoroko jarduerak sustatzeko diru-laguntza deialdian hautemandako Praktika Onen Gida. 2010. urtea.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Adimen edo garapen ezintasuna dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioak (**FEVAS**) **EAE**n adimen-ezintasuna duten pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten **11 familia-elkarte** ordezkatzeko ditu.

Gizarte Erantzukizunerako FEVAS Programa 2010 Adimen Ezintasuna duten Pertsonen aldeko Erakundearen Konfederazioaren (FEAPS) Gizarte Erantzukizunerako estatu-mailako programan txertatuta dago. Bere helburua gizarte erantzukizunerako, batetik, eta FEAPs osatzen duten erakundeentzat baliabideak lortu eta kudeatzeko, bestetik, erreferentzi marko bat garatzea da, adimen-ezintasuna duten pertsonen eta bere familiei aukera berriak eskainiz, eta baita gizartea eraldatzeko urratsak egitea ere, jasangarritasunaren, berdintasunaren eta hiritartasunaren esparruetan.

PRAKTIKA ONAK

Gizarte Berrikuntzarako tresnak garatzea.

Erakundeak sare sozialetan profilak ditu, IKTen bidez partaidetza soziala sustatuz.

Genero ikuspuntua txertatzea.

Proiektuak FEVAS barruan koherentzia, berdintasuna eta bazterketarik ez dagoela bermatu nahi du. Horretarako, besteak beste, zuzendaritza-postuetan emakumeen presentzia handitu du, prestakuntza jasotzeko aukera berdina bermatzen ditu eta ahal den heinean, lana-familia-aisia uztartzeko neurriak aplikatzen ditu.

Proiektua lurraldez gairik lan eraginkorraren bidez gauzatzea.

Ekintzak hiru Lurralde Historikoetan garatzen dira, eta EAE barruan sistema bera erabiltzen da (Estatu osokoarekin bat datorrena).



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Anothe Elkartea animaliek lagundutako terapiaren arloan lan egiten duen erakundea da. Bere helburua elkarte eta profesional askoren lan terapeutikoa ingurune naturaletara hurreratzea da, eta zentro eta erakundeetan laguntza-animaliak sartzea, giza osasunerako lagungarri izan daitekeen lan-tresna bezala.

Bere lanaren oinarria **animalien eta naturaren bidez lagundutako Terapiaren eraginkortasuna zientifikoki balioztatzea da, homologatutako probak erabiliz** (BASC sistema, CAMIR edo TMMS-24) eta animalien ongizatea baloratzea, esku-hartzearen aurretik, bitartean eta ondoren.

Horrekin terapia honen bidez babesik gabeko egoeran dagoen haur-talde baten gizarte-ongizatea hobetzea posible dela frogatu nahi dute.

PRAKTIKA ONAK

Zailtasun sozial metatuak dituzten kolektiboei zuzenduta.

Artatutako kolektiboa 11 eta 17 urte bitarteko adin txikikoak dira, GFAk tutelatutako egoizetatik datozenak. Bakarrik dauden adin txikiko etorkinak eta gaixotasun psikiatriko edo psikologiko larria duten bertako gazteak dira. Euretariko zenbaitek kontsumo eta droga-menpekotasun historia dute eta beste batzuk tratamendu psikologiko erregularrean daude.

Kofinantzazioa eta jasangarritasuna.

Itsasmendikoi Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza Sailak eta Nekatur nekazalturismo etxeen elkarteak kofinantzatuta. Bizkaia eta Arabara zabaltzeko asmoa ere badu. Horretaz gain, GFA, Nekatur, UPV/EHU eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoarekin (UAB) hitzarmenak ditu.

Ekimena era koordinatuan lantzea. UPV-EHU eta UAB azterketa koordinatua egiten ari dira.

BAZTERKETA SOZIALAREN IRUDIA GIZARTEAREN
AURREAN: ZELAN BERRIZTATU POBREZIAREN ETA
GIZARTE BAZTERKETAREN ARLOAN LAN EGITEN DUTEN
ERAKUNDEEN KOMUNIKAZIO-PLANAK

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

EAPN Euskadi-k pobrezia eta bazterketa sozialaren aurka borrokatzen duten Hirugarren Sektoreko entitateak biltzen ditu. Erakunde horiek sarean egiten dute lan, esperientziak trukatu eta proiektu komunak garatzen dituzte, eta solaskidetzarako gaitasuna duen taldea eratzen dute.

“Bazterketa sozialaren irudia gizartearen aurrean: zelan berriztatu pobreziaren eta gizarte-bazterketaren arloan lan egiten duten erakundeen komunikazio-planak” izeneko mintegiak **komunikazioaren esparrura esperientzia berritzaileak ekarri nahi ditu**, entitateek bere eguneroko sentsibilizazio-jardunean txerta ditzaten, IKTak erabiliz.

Horrekin EAE barruan **bazterketa sozialaren arloan lan egiten duten erakundeek duten komunikazio-planen gabeziari erantzuna eman nahi dio entitateak.**



PRAKTIKA ONAK

Tresna berritzaileak erabiltzea. Proiektua bera berritzailetzat joenezake, bazterketa-arloan lan egiten duten erakundeen komunikazio-planen gabeziari erantzuna eskaintzen diolako. Parte-hartzaileei mintegia baloratzeko aukera emango zaie, ebaluazio-galdetegien bidez.

Ekimena era koordinatuan gauzatzea. EAPN pobrezia eta bazterketa errotik kentzeko lan egiten duten EAEko 31 erakundek osatzen dute.

Zailtasun sozial metatuak dituzten kolektiboek zuzenduta.

Mintegia EAPN Euskadi-ren gizarte-erakundeei, Gipuzkoako Sargi Plataforma (21 entitate) eta EAEko Hirugarren Sektoreko 2. eta 3. mailako sare eta plataformei zuzenduta dago.

27. ZERBIKAS FUNDAZIOA

www.zerbikas.es

IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA. NORBANAKOAREN AUTONOMIA ETA GIZARTERATZEAREN SUSTAPENA. ESKU-HARTZE SOZIALERAKO LANGILEEN TREBAKUNTZA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Zerbikas Fundazioa 2007an sortutako irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da, eta hiru erakunde elkartzearen emaitza: Sartu Fundazioa, Drogarik Gabe Bizi Fundazioa y EDEX Komunitate Baliabideen Zentroa. **Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren** eredu pedagogikoa bultzatzen du Euskadin eta **bolontarioen zerbitzua eta ikasketa curricularra uztartu nahi ditu.**

Proiektuak eredu hori sustatu nahi du profesionalak trebatuz. Horrela, hiritarren konpromisoa praktikatik bultzatu nahi du eta, gertuko komunitatea hobetzea. **Aurrez aurreko prestakuntza tailerrak** eskaintzen du **eta** baita erakunde publikoetan zein irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuetan lan egiten duten **gizarte-ekintzako profesionalentzat on-line trebakuntza** ere.

PRAKTIKA ONAK

Metodologia berritzailea erabiltzea. Ikasketa eredu hau Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa sustatzeko aitzindaria da Euskal Herrian. Halaber, prestakuntzaren atal bat garatzeko *on-line* plataforma bat erabiltzeko asmoa dago.

Ekimena era koordinatuan garatzea. Fundazioa 3 erakundek osatzen dute: Sartu Fundazioa, Drogarik Gabe Bizi Fundazioa y EDEX Komunitate Baliabideen Zentroa, eta hiruren artean proiektua garatzeko behar diren baliabide pertsonal eta materialak eskaintzen dituzte.

Proiektua lurraldez gairik lan eraginkorraren bidez gauzatzea.

EAEko hiriburu bakoitzean prestakuntza-tailer bat egiteko asmoa dago.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Adimen edo garapen ezintasuna dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioak (**FEVAS**) **EAE**n adimen-ezintasuna duten pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten **11 familia-elkarte** ordezkatzeko ditu.

Teknologia Berriak Auzitara proiektua **adimen ezintasuna duten pertsonen premiak kontuan hartuko dituzten proiektu tekniko, enpresarial eta sozialen garapenean**, botere publikoen, eragile ekonomiko eta sozialen, eta azken batean, **gizarte osoaren inplikazioa lortu nahi duen jardunaldi bat** da. Horretaz gain, bada bere asmoa gizartean dauden bazterketa-era berrien gainean sentsibilizatzea eta adimen ezintasuna duten erabiltzaileei teknologia berriak eskaintzen dituzten aukerak eta arriskuak zeintzuk diren jakitera ematea, eta FEVAS osatzen duten entitateen profesionalengan ezagutza sortzea.

PRAKTIKA ONAK

Gizarte Berrikuntzarako tresnak garatzea.

Jardunaldiaren gaiak berak kontuan hartzen du adimen-ezintasuna plataformak teknologikoen diseinuan sartzea eta baita teknologia berrien edukietan ere, hainbat ikuspuntu jasota: Administrazio Publikoarena, Hirugarren Sektoreko Erakundeena, adimen-ezintasuna duten pertsonena eta euskarriak eta edukiak garatzen dituzten enpresena.

Ekimenak era koordinatuan garatzea.

Proiektua FEVASek garatu du, eta adimen-ezintasunaren inguruko 11 erakunde biltzen ditu. Hortaz, antolatutako ekimenak ez dira FEVASentzat bakarrik baizik eta federazioa osatzen duten gainerako erakundeentzat.



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

SOS Racismo Bizkaia inmigratutako pertsonen eta gutxiengo etnikoen integrazioaren alde lan egiten duen gizarte-mugimendua da, 1992an sortua.

Proiektu honen bidez, **hausnarketarako, sentsibilizatorako, sarean lan egiteko eta kontzientziatzeko gune bat** sortu nahi da eskubide-berdintasunaren alde dagoen gizarte-eredu baten baitan, **jarrera arrazistak, xenofoboak eta kolektiboa estigmatizatza bideratutakoak alde batera utzita**. Diseinatutako ekintza-multzoaren barruan (zinemaldiak, eztabaidak) EAE osoko 2.000 lagunetik gorako parte-hartzea espero da. **Ezagutza zabaltzeko eta sentsibilizazio-lana egiten duten kolektibo bideratzaileei** zuzenduta dago batik bat. Horretarako boluntarioen laguntza dauka eta sarean egiten du lan lankidetzaren hiru lurraldeetako entitateekin, eta bereziki Gipuzkoako SOS Arrazakeriarekin.

PRAKTIKA ONAK

Lurraldez gaindiko ezarpena. Ekimena Erkidego-mailan egingo da, hartzaile gehienak Bizkaiko LHaz gaindikoak direlako: hezkuntza-zentroak, UPV/EHuko irakasle, ikertzaile eta ikasleak, gizarte-erakundeak, etab.

Komunitatea garatzeko bideak sustatzea. Zenbait erakunde publikoren lankidetzaren espero da, hala nola Arartekoa, Eusko Jaurlaritzaren Inmigratio Zuzendaritza, Ikuspegi, Getxo, Basauri eta Santurtziko Udalak, eta UPV/EHU.

IKTak erabiltzen ditu materialak zabaltzeko, eta bere webgunearen, sare sozialen eta blogen bidez, eztabaida eta hausnarketa sustatzeko. Gune horiek dokumentuak deskargatzeko, salaketak egiteko eta abarrerako ere erabilgarri daude.